

URBIAKO FONDAREN ISILTASUNEAN PROTAGONISTAK MINTZO

Iñigo ARREGI

Urbiako fonda-aterpeak dagoeneko hilabete ta erdi itxita daraman honetan, auzi ilun, luze eta korapilotsu horretan sartuta eta zerikusia duten alderdiekin hitzegin dugu. Hala ere, arazoa urrutiegi iritsi delakoan gaude, tartean iritzi trukaketa asko egon da, baita hitz zakarrik ere, baina behar-bada, arazoa errotik eta hasieratik eta garaiz mozten jakin behar zuen agente hori falta izan da. Norberak jakingo du zeintzuk diren bere ardurak. Guk eskuetara iritsi zaizkigun dokumentu eta jaso ahal izan ditugun iritziekin, dossier antzerako bat prestatu dizuegu. Norberak atera bitza bere ondorioak.

• Historia apur bat

Urbiako fonda 1925ean inauguratu zen, bertako baseliza eraiki eta handik urte batera, garai hartan Partzoneriako presidentea zen Segurako alkatearen proposamena onartu ondoren, halako inguru zoragarri batera joaten ziren mendizale ugarien behar eta premiei erantzuna eman ahal izateko helburuarekin. Telefono publikoa ere, orduantxe ipini zuten fonda berean, Aizkorriko mendikate zabalean dagoen bakarra.

Zortzi urte beranduago, Segurako Udalean 1933ko abenduaren 26an egindako bilkura berezi bati dagokion aktan jasotzen den bezela, Partzoneriako kide diren Asparrena eta San Millango arabar Hermandadeek, Urbiako aterpe-fondaren salmentaren kome-nientzia aipatzen dute, beste neurri batzuekin batera, Parzoneriako komunitateak bizi zuen egoera ekonomiko larri hartatik irtetzeko bide bezela.

Horrela bada, Partzoneriak Urbiako fonda inorenganatzeko edo saltzeko erabakia hartu zuen, enkante publiko bidez. Enkante hau birritan hutsik gelditu ondoren, azkenean Zeraingo semea zen Joaquin Muñoa jaunak erosi zuen 1938ko ekainaren 14ean, 13.125 pezetaren truke salmenta agirian adierazten den bezela. Terrenoak ordea, etxea dagoen tokikoa eta baita etxe inguruak ere, Partzoneriarenak izaten jarraituko du.

Agiri horretan adierazten denez, Partzoneriaren jurisdikzio edo barrutian edariak saltzeko eskusiba izango du, eta berau transferiezina izango da. Etxeari dagokionean berriz, saldu edo eta errentan uzteko askatasun osoa izango du; hala ere, ezin izango du jabeak etxea lau urtez baino gehiagoz itxita edo eta abandonatuta utzi, horrelako kasuan Partzoneriaren jabegora pasatuko litzatekeelako zuzen zuzenean.

Egun berean dena den, Joaquin Muñoa jaunak, Zegamako Pedro Etxezarreta jaunari saltzen dio, azken urterarte fondaren jabea izan den Martinen aitari, prezio berberean eta etxeari dagozkion erabilera eta eskubide guztiekin.


Hogei urte beranduago, Segurako Udaleko agirietan ikus daitekenez, 1958ko abenduaren 23an Pedrok bere alaba Justa Etxezarretari utzi zion, eta hamalau urte beranduago, 1972ko urtarrilaren 31ko eskrituran ikus daitekeenez, azken honek bere anaia Martini utzi zion.

Gaur egun Urbiako fondaren jabea den Patxi Alustizak, 1993ko urtarrilean erosi zion Martini.

Zazpi hilabete eskas beranduago ordea, uztailaren 28an, hain historia luzea duen Urbiako fonda prezintatu egiten du Ertzantzak Partzoneriakoen aginduei jarraituz eta zalantzarik gabe, bertan zeuden edo eta egon ez arren, Urbia maite duten mendizale guztien harridurarako.

Atzera-eskuratze errekurtsua

Mendizaleen harridurarako diogu, izan ere harritzekoa bait da, itxuraz inolako kalterik egin gabe, alderantziz, mendizale askoren iritziaren arabera Urbiako aterpean beharrezkoak eta ezinbestekoak ziren enokitze eta konnonketa la-



nak egin ondoren, Patxi Alustizari janari-edariak eskeintzeko zerbitzua prezintatu izana, mendizale guztiak aho bete hortz utzita, tartean egon daitekeen arazoari buruzko inolako informaziorik gabe.

Partzoneriako ordezkarien egoneza ordea, badirudi askoz lehenagotik datorrela, Martinek Patxiri saldu ziola jakin zuten egunetik.

Martinek iazko udazken aldera fonda saltzeko asmoa erakutsi zuen. **“Pena haundiarekin, baina jubilatzeke garaia ere iritsi zait, eta familian ere semeari gaixotasuna gertatu zaionez, ez dugu jarraitzeko laguntasunik izan, eta beraz saltzea erabaki genuen”.**


Partzoneriakoengana jo zuen zuzenean Martinek. **“Eurek eskeini zidaten kantitatea bajuegia irudituz zizaidan. Orduan, eurek gehiago ematerik ez zeukatenez, gehiago emango zidan norbaiten bila joatea neukala komentatu zidaten. Orduan, Patxi agertu zen, askoz ere eskeintza hobea egin zidan eta berari saltzea erabaki nuen”.**


Arazoa orduantxe sortzen da, gaur egun Partzoneriako presidentea den Alfredo Saez de Arregiren esanetan: **“Guk prentsaren bidez jakin genuen lehenengoz, Martinek Patxiri saldu ziola fonda, eta jakina, guk ezin dugu hori onartu, gure ustez, etxea dagoen tokiko eta inguruko terreneen jabeak garenez, lehendabiziko erosleak izateko eskubidea daukagula uste dugulako, sortzen den erosle posible horrek eskeintzen**

duen prezio berean. Martinek aukera hori eman ez zigunez, guk, erreklamazioak egiteko zegoen epean Atzera-Eskuratze edo Retracto errekurtso formulatu genuen, eta halaxe jakin arazi genion Patxiri. Orain Tolosako epaitegiak erabaki behar du”.

Urbiarekin enamoratuta

Aldizkari honen Otsaileko zenbakian egin genion elkarrizketan agertu zen bezela, mendizaletasunak eta batez ere Urbiarekiko miresmenak eraginda erabaki zuen Patxi Alustiza legazpiarrrak fonda erostea. **“Nola sartuko nintzen ba ni bestela, arazo eta traba guzti hau sortuko zela jakin izan banu halako millonada batean?”** gaineratzen du gaur egun.






Halaxe bada, berehala ekin zion Patxik etxe hark behar zituen egokitzapen eta konponketa lanak egiteari: sukaldea eta komunak behar bezela ipini, hotz egunetan tabernara sartu gabe etxetik eramandako bokadiloak atarian jan ahal izateko ate bikoitza, eta etorkizunearan mendizaleek fonda bertan gaua eman ahal izateko logelak egokitzen hasi zen. Urbiako zelaietan batze zen zaborrak kezkatuta, ardura hori ere bere gain hartzeko prest agertzen zen, eta etorkizunerako beste hainbat proiektu ere bazituen Patxik, nahiz eta lehendabizi Federazio eta mendiarekin zerikusia duten beste erakundeei baimena eskatuko behar zion, idatzita agertzen den bezela.

Halaxe, martxoaren 9an, Partzoneriako ordezkariekin biltzen da, berak egin asmo dituen berrikuntzen berri ematearekin batera, inguru hartarako Partzo-

neriak zeukan asmoen berri jakin nahian. Patxik plano batekin adierazten ditu bere egitasmoak, beharrezko Proiektu Teknikoa ere aurkeztuko duela gaineratuz.

Apirilean Partzoneria zuzentzen zaio Patxiri, legez kontrako obrak egiten ari dela esanez eta ahalik eta azkarren legalizatzeko eskatuz Alfredok dioskun bezela: **“Lehenengo Otsailean komentatu genion, obrarik egin edo eta ostalaritza aktibitatek egin behar bazuen beharrezko baimenak eskatzeko. Apirilean berriro. Bere erantzuna, uztailearen 5ean jaso genuen, eta aparejadore baten zertifikatu batekin, Proiektu Teknikoa egiten hasiko zela aipatzen zigun Patxik. Sei hilabete pasatu dira ordurako. Lehenago egin izan balu, tolerantzia gehiago izango genuen. Bestalde, prentsa bidez, Urbiako**



fondan izugarrizko aldaketak egin behar dituela jakiten dugu, nahiz eta Patxik berak esaten digun, guzti horiek kazetarien asmakizunak direla. Susmo txarra hartzen dugu. Patxik berak komentatu diguna baino askoz ere aldaketa haundiagoa eman behar diola ikusten dugu". Puntu honetara iritsita, inportantea bezain harrigarria da, Patxik fondan egin dituen aldaketak gehiegizkoak iruditzen ote zaizkien galdetzen diegunean, ez dituztela ikusi eta ezagutzen ez dituztela entzuten dugunean. **"Komunetan egindako konponketak Patxik berak erakutsi zizkigun. Baina hortik aurrerakoak gure teknikoek ere ez dituzte ikusi. Behin modu txarrean hartu gintuzten bertan"** dio Partzoneriako ordezkarietako batek.

Tarte luze honetan, dudarik gabe parte arteko harremanetan, eta batez ere Patxiren bizimoduan eragin handia izan duen gaixotasuna dago. Gaixotasun larria gertatu zaio Patxiri, eta inolako zalantzarik gabe, bere proiektua azkarrago egin ez izanaren arrazoi nagusietako bat da.

Kontuak kontu, ordurako, ekainaren 23an hain zuzen ere, Partzoneriak hirigintzan egindako arau-haustea argudiatuz, Patxiren aurkako espedientea zabaltzeari ekiten dio.

Patxi Alustizak, uztailaren 7an aurkeztutako idazti baten bidez hainbat alegazio egiten dizkio espediente horri, eta Partzoneriari aurkeztu beharreko proiektua egitera doala adierazi ondoren, baldintzapean bada ere, ostalaritza aktibitatearekin ekiteko baimena eskatzen dio azken honi.

Horiek horrela, Partzoneriak, uztailaren 16an burutzen duen batzar berezian, Alustiza jaunak Urbiako fondan daukan janari-edari eta ostatu zerbitzua bapatean ixtea dekretatzen du, bertan burutzen ari den aktibitatea **"legez kanpokoa eta klandestino"** izateaz gain, dagoen baldintzetan dagoela **"persona eta ondasunentzako arriskutsua"** dela argudiatuz. Horrela jakin arazten zaio Patxiri, eta gaineratzen, hiru egunen buruan itxita ez bada, Ertzantza joango dela lokala ixtera.

Hamabi egun ondoren Urbiako Jai haundiaren bezperatan, Patxi Alustizaren Proiektu Teknikoa Partzoneriara iritsi baino egun batzuk lehenago (Abuztuaren 8an iristen da) Ertzantzak prezintatu egiten du fondako sukalde eta jangela.

Mendizaleen kezak

Auzi guzti honetatik kanpo egon arren kaltetu zuzena den aldetik, Urbia maite duen edozeinek, are gehiago inolako

informazio argirik ematen ez zaionean, hainbat galdera eta kezka luzatzeko eskubidea dauka, eta horrelaxe gertatu da, herrian zehar banatu diren orrialde batzutan idatzita agertu den bezela.

“Patxi Alustizak egin dituen eta begibistan dauden egokitze eta berrikuntza lanak premiazkoak zirela argi eta garbi dagoenean, eta lokal horretan hainbeste urtetan egin den aktibitatearekin jarraitu baino egin ez duenean Patxik, harrigarria eta sinestezina da nola hartu dezakeen orain Partzoneriak fonda isteko erabakia”. **“Orain arte ez ote da egon sanitate arazorik Urbiako fondan, eta orain bapatean pertsona eta ondasunentzako arriskutsua omen da?”** **“Partzoneriako terrenotan eta fondatik urrutiegi joan gabe, ez ote daude janari-edari zerbitzua duen**

beste txabolarik?” **“Nola utzi daiteke zerbitzurik kanpo Urbia guztian zehar dagoen telefono publiko bakarra?”** Kalean dauden galderak dira zalantzarik gabe, inortxok ere ez dakien arazoirenen bategatik, Partzoneriak Patxiren aurkako “izkutuko gerra” bati ekin dion ustea zabaltzeraino.

Partzoneriako ordezkariak jakina, ezeztatu egiten dute erabat argumento hau. **“Guk badakigu irregulartasunak alde guztietan daudela, baina ezin gara bapatean guztiekin sartu. Fondaren auzi hau oraintxe sortu da. Martinek saldu nahi zuela jakin genuen, eta guk noski, erosteko asmoa daukagu, baina gu ez gara fondaren bila joan. Guk Urbiako aktibitate guztia erregularizatu nahi dugu, eta oraintxe sortu da fondarena konpontzeko aukera, besterik gabe. Gainera, oso kontutan izan behar da, orain baino lehenago, artzai bati baino gehiagori bota arazi diogula baimenik gabe jasotako txabola; eta hori oso gogorra da, baina ez du horrelako zabalpenik izan.**

Gainerako txaboletan ere aktibitate-rik badagoela? Jakina baietz, baina inolaz ere Urbiako fondak hartu behar zuen bolumenarekin, eta beraz, batean eta bestean erabiliko diren produktu kontaminanteak ez dira berdinak. Dena den, berriro diot,



artzaien aktibitatea ere erregularizatzeko asmoa daukagu, baina bakoitza bere garaian” dio Partzoneriako presidentek.

Patxiri Urbiarako pistetako bidea ukatzea, Artzanburutik nahiz Arayatik, edo eta fonda ondoko baratza eta almazenerako txabolaren erabilpena debekatzea, eta azkenik San Iñazio berperetan fonda ixtea, dotorezia gutxiko ekintzak iruditzen ez ote zaizkien ere galdetu diegu, eta zera erantzuten digu Alfredok: **“Serioak izan behar dugu. Lehen aipatu dudan bezela, prozesu luze bat egon da, Proiektuak aurkezteko epeak agortu dira, eta gu ez gara hamar lagun bakarrik, 10.000 partzoneroren ordezkariak gara, eta gauzak behar den bezela egiten eta betearazten saiatuko gara, baina guk ez daukagu ezer Patxiren aurka”**.

Hala ere, Patxi Alustizak fonda itxi ondoren, uztailaren 28 eta 29an Partzoneriari zuzentzen dizkion alegazioekin bat etorriaz, Administrazioak gizartearen onerako jokatu behar duela kontutatu izanik, prezipitatu ez ote den alegia pentsa liteke. Halaxe dio Patxik berak, aipatutako alegazio horietako batean. **“Partzoneriak neri eskatutako Proiektu Teknikoa iristeko egun gutxi batzuk baino falta ez zirela (Abuztuak 8) kontutan izanik, horrelakoe-**

tan, herritarren onerako Administrazio mailan erabili ohi den diskrezio eta pazientzia falta izan zaizuela uste dut”.

Honen aurrean zera argu-



mentatzen du Saez de Arregi jaunak: **“Gu ez gara mendizaleak eta ez gara artzaiak eta ez gara inoren lagun edo etsai. Momentu honetan Administrazioan gaude eta legeak betearazten saiatuko gara. Baina gehiago esango dizut, uste dut mendizale asko ez dira haserretuko, izan ere, guk Aitzgorriko Mendikateari buruz landuta daukagun ordenamendu proiektuarekin bat etorriaz, Urbiako fonda zerbitzu-gune bai, baina gutxieneko edo urgentziatzko zerbitzu-gune bezela bakarrik uztearen aldeko mendizale asko dagoela uste dut, eta ez**

erresidentzia bat bihurtzearen aldeko". Puntu honetara iritsita, komeni da gogoratzea, Patxik une oro erakutsi duela gainerako Erakundeen iritziak jasotzeko gogoia, aldizkari honen Otsailleko zenbakian azaltzen den bezela, eta berak adierazten duen moduan: **"Nik komentatu nizun fonda atzekaldean, teilapea aprobetxatuaz, mendizaleentzako dutxa eta fregadero batzuk ipini nahi nituela, barruko mugimendua arintzeko. Gero Federazioak esan zidan, gehiegi ez ote zen izango eta beharbada ez zela komenigarria izango, eta ez da egon problemarik, ez dut ezer egin eta kitto!"**.

Etorkizunari begira

Opor ostean, pasa den irailaren 3an bildu ziren Partzoneriakoak, hain zuzen ere Patxik bidalitako



Proiektua aztertzeko. Fonda zabaltzerik ba ote dagoen galdetu genienean, **"Proiektua ondo baldin badago, guk obretarako baimena emango diogu, inolako problemarik gabe"** erantzun zuen Saez de Arregi jaunak.

Hala ere, gogoratuko behar da, oraindik ere auzitan geratuko litzatekeela Erretrako Errekurtsoa. Honezkerok, "kulebroi" luzea bilakatu den arazo honetan, norbaiti bururatuko zitzaion, Errekurtso horren epaia Patxiren aldekoa balitz, Partzoneriak bere eskuetan izango lukeela oraindik ere Patxi, hain zuzen ere bere aktibitatea burutzeko beharrezkoak dituen fosa septikoa eta beste hainbat gauza fondaren ingurukoak eta beraz Partzoneriaren terreneak diren horien beharra izango lukeelako. Geuk ere, errespetu osoz mahai-gaineratu genien, eta erantzuna argia eta bakarra izan zen: **"Gu ez gara mamu batzuk eta ez daukagu ezer-txo ere Patxiren aurka"**.

Erreportai honen erredakzioaren azken unean ere, berriro Saez de Arregi jaunarekin harremanetan jarri ondoren, irailaren 7an, Patxik bere proiektua lehenengo Diputazioan aurkeztu behar omen duela, eta beraz horixe komunikatu behar ziotela adierazi digu, proiektuari oneritzia eman ote dioten galdetu diogunean. Etxe handiko kontuak poliki joaten dira.

Patxi berak ere ez du uste konponbidea oso gertu dagoenik. Politikariek, Udaletxe batzuk eta Diputazioak lan gehiago egin beharko dutela uste du. Berak dagoeneko, auzi honek ekarri dizkion arazo guztiekin asper asper egin ondoren, konponbide bat lehenbaitlehen aurkitzearen, fonda Partzoneriari saltzeko prest dago eta halaxe, oferta bat luzatu dio. **“Nik neure oferta luzatu diet. Etxea salduko nieke, baina lokala neuk esplotatuko nuke 50 urtean, oferta horren arabera. Jakina, prezio eta urte kopuruarekin negoziatzeko prest nago, baina oraindik ez dut kontra-ofertarik**

jaso. Horregatik diotsut, lehenengo, partzonerioen artean ados ipini behar dutela, eta gero parte bien arteko negoziazioa aurrera eraman ahal izango duen parte neutral bat behar da. Neure aldetik ipini dut jendea martxan, eta espero dezagun bere fruituak ematea”. Partzoneriako ordezkarien hitzetan, euren ezin dute inolaz ere oferta hori onartu, **“erostekotan, geure ardurapean geldituko litzateke zerbitzuaren esplotazioa, eta geuk aterako genuke enkante publiko bidez, mundu guztiak aukera izan dezan”.**